



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

HAINBAT ORDENANTZA ALDATZEKO ORDENANTZA, ZEIN ZERBITZU JARDUERETARAKO SARBIDE LIBREARI ETA HORIETAN ARITZEARI DAGOKIONEZ AZAROAREN 23KO 17/2009 LEGERA EGOKITZEKO BAITA.

Zerbitzu jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzko 2009ko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak (aurrerantzean Legea) Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/CE zuzentaraua zati batean sartu du Espainiako ordenamendu juridikoan; Europar Batasuneko barne merkatuaren zerbitzuei buruzko zuzentaraua da hori.

Zerbitzuen araubidea hobetzea bultzatzeko xedea du Legeak, zerbitzu jarduera burutzeko oztupoak kenduz, estatu osoan zerbitzu jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzko araubide orokorra ezarriz, eta jarduera horiei jartzen zaizkien mugak salbuespen gisa arautuz. Printzipio horien aplikazio orokorra dela eta, beste maila batekoak diren, baina Legeak eragiten dituen arauak aldatu behar dira.

Legea onetsi da eta horrekin zuzentaraua ezarri, baina horretaz aparte, zerbitzuen arloan arautzeko eskumena duten administrazioek ere haien arauak aldatu behar dituzte Legea egokitzeko.

Ildo horretatik, Legeak administrazio publikoen –toki administrazioak barne– arauak egokitzeko sistema bat ezarri du bere azken xedapenen bidez. Gainera, estatuko administrazio orokorrari Legeak xedatutakora egokitzeko aldatu diren arauen berri emateko epea aurreikusi da; komunitate zein estatuko legegileentzat duen garrantziaren erakusgarri hori ere. Laburbilduz, Legea administrazio guztiek aplikatu behar dute eta horretarako haien printzipio eta arauak egokitu beharko dituzte Legeak dioenera.

Gasteizko Udalak, Lurraldeko Administrazio Publiko denez, Legeak aplikagarri duen eremuaren baitako hainbat zerbitzu jarduera arautu ditu, bere ordenantza eta araudien bitartez, eta lege horrek ezarritakora egokitu egin behar dira. Dena den, horietako asko autonomia erkidegoaren eskumen diren sektoreko arauen menpe daude, oraindik egokitu ez diren arauen menpe, hain zuzen.

Egoera hori izanik, legezko gaikuntza dagoelako edo udal araudia autonomia delako erabakia har daitekeen arloetara mugatu da proposatutako egokitzapena, hain zuzen, baimena eman edo ez, edo baimen horren baldintzei buruzko erabakietara.

Egitura erraza du ordenantzak, lau kapitulu ditu eta lehenengoan hainbat sail eragiten duten neurri horizontalak xedatu dira; baimen zein jakinarazpen araubidearen ingurukoak dira. Beste hiru kapituluetan Legeak eragin dituen sektore ordenantzetan egindako aldaketak jaso dira.

I. KAPITULUA.- NEURRI HORIZONTALAK

1. artikulua. Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorraren ordenantzak aldatzea.

Bat. II. liburukiaren III. tituluko 2. kapitulua honako izena izango du:

“2. KAPITULUA: LIZENTZIAK, BAIMENAK ETA AURRETIAZKO JAKINARAZPENAK”

Bi. 3.02.02. artikulua honela idatzi da:

“3.02.02. artikulua.- Lizentzia behar duten ekintzak.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.1. artikulua araututako erabilera eta eraikuntza ekintza guztiek beharko dute udal lizentzia, indarrean dagoen legediak galdatutako baimenak gorabehera; baita honako plangintza orokorrean galdatutakoak ere, bereziki honako ekintzak:



- a) Lursailak zatitzea eta segregatzea edo finkak banatzeko beste edozein ekintza, edozein dela lurzoru mota, lursailak zatitzeko proiekturen baten barruan ez badaude.
- b) Oin berriko edozein motatako instalazioak eraikitzeke, egiteko eta jartzeko obrak.
- c) Lehendik dauden edozein motatako etxe, eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
- d) Aldatzeko edo eraberritzeko obrak, baldin eta eraikinaren egitura edo konfigurazio arkitektonikoari edo zeinahi motatako etxe, eraikin eta instalazioen kanpoko itxurari eragiten badiote.
- e) Eraikinen barne-antolaketa aldatzen duten edo eraikinak zaharberritzeko diren lanak. Berdin dio eraikin horiek erabilera baterako edo besterako diren, eta obra horien artean sartuko dira aurretik zegoen etxebizitza bi etxebizitza edo gehiagotan banatzea dakartenak ere.
- f) Behin-behinekoak izango diren obrak.
- g) Eraikuntza-lanen osagarri izango diren urbanizazio-obrak.
- h) Eraikuntzen eraispena; salbuespen izango dira erortzeko zorian dauden eraikintzat hartutakoak.
- i) Edozein motatako lurzorutan egin beharreko lur-mugimenduak eta lurra erauzteko eta berdintzeko lanak.
- j) Hondarrak eta hartxintxarrak ateratzea eta harrobiak ustiatzea.
- k) Hondakinak pilatzea eta paisaia naturalaren ezaugarriekin zerikusirik ez duten materialak biltzea, baldin eta paisaia horren hondamena eta degradazioa eragiten badute.
- l) Finkak ixtea, murrak egitea eta hesiak jartzea.
- m) Bideak irekitzea, eta bide horietan aldaketak egitea edo zoladura jartzea.
- n) Etxe prefabrikatuak eta antzeko ezaugarriak dituzten instalazioak jartzea, direla behin-behinekoak, direla iraunkorrak.
- o) Berotegiak jartzea.
- p) Propagandako kartelak eta panelak bide publikotik ikusteko moduan jartzea, baldin eta kartel eta panel horiek egiturazko euskarria den elementu baten kontra edo gainean ipini badira.
- q) Lurpean eraikitzen diren edo lurpeari eragiten dioten instalazioak.
- r) Linea elektrikoak, telefono-lineak edo antzekoak instalatzea; telekomunikazio-sareak edo energia garraiatzeko sareak instalatzea; eta edozein motatako antenak jartzea.
- s) Obren edo horien zatien lehen erabilera, baita horien aldaketa zein eraikinaren erabilerak zati batean edo osotasunean aldatzea ere.
- t) Establezimenduak irekitzea, industria, merkataritza, lanbide zein elkarrekin zerikusia dutenak barne
- u) Lurralde edo hirigintza plangintzak babesten dituen zuhaitz edo zuhaixka-erako landareria moztea.
- v) Presak eta urmaelak eraikitzea, ubide publikoak eta bide publiko zein pribatuak babestu zein zuzentzeko obrak, eta, oro har, lurraldearen konfigurazioan eragiten duen edozein motako obra edo erabilerak,
- w) Lege honek arautzen dituen lurzoru urbaniza ezinezko eraikinak.
- x) Lurralde eta hirigintza antolamenduko tresnek adierazten duten beste edozein ekintza, oro har, 2/2006 Legearen 207. artikuluan xedatutakoaren arabera burutzen diren obrak edo egiten den lurzoruaren, lur-azpiaren edo hegalararen erabilera."

Hiru. 3.02.03. artikulua honela idatzi da:

"3.02.03. artikulua.- Udal baimenak.

Behin-behineko jardunek eta aurreko artikuluan jaso ez direnek Udalaren berariazko baimena edo aurretiazko jakinarazpena beharko dute abiarazteko."

Lau. 3.02.05 artikulua honela idatzi da:

3.02.05. artikulua.- Aurretiazko zuzemenak.

Mota bakoitzari dagokion berariazko araubidean xedatutako agiriak aurkeztu beharko dira lizentzia eta baimen eskabidearekin edo aurretiazko jakinarazpenarekin batera.



Bost. 3.02.16. artikuluko 2. idatz-zatia honela idatzi da:
"2. Tramitazioa.

Kudeaketa araudiaren 75. artikulutik 130.era, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta honako arauetan xedatutakoarekin bat tramitatuko dira lursailak banatzeko dosierrak.

Hiri lurzoru edo urbanizagarri gisa sailkatutako lurren balioespenari dagokionez, eragindako jabeak ados jartzen ez badira, lurzoruari buruzko legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraiki jokatuko da.

Sei. 6. idatz zatia honako izena izango du:

"6. idatz-zatia. Industria eta sailkatutako jardueren jarduera eta obra lizentziak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea)."

Zazpi. 3.02.24. artikulua honela idatzi da:

"3.02.24. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1. Udalerrian etxebizitzetarako sailkapena ez duen beste edozein erabilera edo jarduera instalatzeko, kokatu nahi den lurzoru mota edozein dela ere, udal lizentzia eskuratu beharko da lehenago. Honako kasuetan eman beharko da lizentzia:

Areto edo eraikina lehenengoz okupatzen denean.

b) Dagoen erabilera aldatzen denean, dauden instalazioak aldatzeko beharra gorabehera.

2. Jarduera lizentzia eta obra lizentzia: biak eskatu beharko dira bigarren hori beharrezko eta galdagarri bada.

Obra lizentzia beharrezko izan ezean, jarduera lizentzia izango da nagusia, bakarra izango baita.

Bi kasuetan lizentzia emate bakarra izango da."

Zortzi. 3.02.25 artikuluko bigarren eta hirugarren idatz-zatiak honela idatzi dira:

"2. Sailkatutako jarduerak burutzeko lizentzia eskabideak honela tramitatuko dira:

a) Neurri zuzentzaileen inguruko txostena behar izanez gero, sailak eskatuko du.

Eman ondoren, kasua zein den kontuan hartuta, b) edo c) epigrafeen arabera jardungo da.

b) Obra lizentzia beharrezkoa izan ezean, ingurumen arloan eskumena duen sailak jakinaraziko dio, zuzenean, eskatzaileari jarduera lizentzia ukatu edo eman zaion, baita egoki diren neurri zuzentzaileak ere.

c) Obra lizentzia behar izanez gero, eta ingurumen arloan eskumena duen saila eskabidearen alde agertu ondoren, eskatzaileari jakinaraziko zaio behar hori, neurri zuzentzaileekin batera, dagokion obra lizentzia eska dezan. Eta dosierra, aldeko txostenarekin batera, lizentzia horiek ematen dituzten zerbitzu teknikoei helaraziko zaie.

Obra lizentzia eskatu ondoren, arau hauetako III. tituluaren 2. kapituluko 1., 2. eta 5. idatz-zatiek xedatutakoarekin bat, hura eman edo ukatu egingo da, edozein kasutan lizentzia bakar gisa, hots, jarduera eta obra lizentzia, administrazio ekintza bakartzat hartu beharko dena.

3. Dena den, obra lizentzia eskatu eta eman ahalko da jarduera lizentziatik aparte, zuzenbidearekin bat, jabeak aurreikusitako erabilera zehatzik ez dagoela berriaz adierazten badu, edo, jada, baimendutako erabilera baten ingurukoa bada eta lizentzia eskuratzeko baldintzak betetzen baditu, jarduera eta erabileren inguruko araudiarekin bat.

Bederatzi. Zazpigarren idatz zatia honako izena izango du:

"7. idatz-zatia. Irekitzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera sailkatutako jarduerak) eta lehenengoz okupatzeko lizentzia."

Hamar. 3.02.26. artikulua honela idatzi da:

"3.02.23. artikulua.- Noiz aplikatu eta aplikatzearen xedea.



1. Eraiki berriak diren edo, jada, eraikiak daudenen gainean egiten diren eraikuntza obrek, eraikinaren zati baten edo eraikin osoaren bizigarritasun zein instalazio baldintzak sortu edo aldatzea ekartzen badute, irekitzeko eta lehenengoz okupatzeko lizentzia eskuratu beharko dute, okupatu aurretik.
2. Amaitutako obrak jarduera eta obra lizentzian xedatutako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du lizentziak, eta eraikina onik zaintzeko betebeharraren gutxieneko zehaztapenak jasoko."

Hamaika. Idatz-zati berria gehitu da, hots, 8, honela dioena.

"8. idatz-zatia. Martxoaren 9ko 165/99 Dekretuan jasotako jarduerak burutzeko baimena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitako jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda finkatzen da dekretu horretan.

3.02.29. artikulua.- Eskabidea eta agiriak.

Martxoaren 9ko 165/99 Dekretuan jasotako jardueretako edozein burutzeko dagokion eskabidea aurkeztu beharko da udaletxean, dekretuan bertan xedatutako agiriekin eta ordezkartzaren egiaztagiriarekin batera, kasua hori bada; Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusitako jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda finkatzen da dekretu horretan.

3.02.30. artikulua.- Ondoko bizilagunei jakinaraztea.

Agiri horiek aztertu, aurkeztu beharreko agiririk falta bada hori aurkezteko eskaera bete, kasua hori bada, eta erabilera indarrean dagoen plangintzara egokitzearen inguruko txostena eman ondoren, jarduera kokatuko den tokiaren ondoko bizilagunei jakinaraziko zaie, banan-banan, hamar eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

3.02.31. artikulua.- Neurri osagarriak.

Beharrezko diren txosten teknikoak eta alegazioak, halakorik balego, ikusi ondoren, dena delako jarduerak burutzeko galdatu behar diren neurri osagarriak ezarriko ditu Udalak.

Salbuetsitako jarduerarako baimenari erantsiko zaizkio neurriak.

3.02.32. artikulua.- Salbuetsitako jarduerarako baimena.

Salbuetsitako jarduerarako baimenak dena delako jardueran aritzea ahalbidetzen du, baina jarduera horretarako obra lizentzia eta lehenengoz okupatzeko lizentzia ere eskatu beharko dira, jardueran aritzeko beharrezko badira.

3.02.33. artikulua.- Salbuetsitako jarduerarako baimena eta obra lizentzia.

Obrak egin behar izanez gero, salbuetsitako jarduerarako baimena eta obra lizentzia egintza bakarrean emango dira, dena den, salbuetsitako jardueren inguruko 3.02.25. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa ere bete beharko da.

3.02.34. artikulua.- Jarduerak burutu ahal izateko egokitasuna jakinaraztea.

Instalazioak aurkeztutako dokumentaziora eta eskatutako neurri osagarrietara –halakorik bada– egokitzen direla jakinarazi beharko diote jardueraren titularrek Udalari, beharrezko ziurtagiri teknikoak erantsiz.

3.02.35. artikulua.- Udalaren egiaztapena.

Udalak behar diren egiaztapenak egingo ditu adierazitako egokitasuna benetakoa dela baieztatzeko, eta dagokion egiaztatze aktan jasoko du. Akta aldekoa bada, interesdunei jakinaraziko zaie; bestela, otsailaren 27ko 3/98 Legean ezarritakoari jarraituko zaio, eta dagozkion dosierak (errekerimendua egiteko, zigortzeko edo jarduera ixteko) abiaraziko dira.

3.02.36. artikulua.- Salbuetsitako jarduerarako baimena eskualdatzea.

1. Salbuetsitako jardueraren baimena eskualdagarri izango da, baina, eskualdatuz gero, udalari jakinarazi beharko zaio, hamabost eguneko epean, titulartasuna alda dadin. Baimena eskualdatu bai baina dagokion jakinarazpena gauzatzen ez bada, transmititzen



duena zein eskuratzen duena, biak izango dira titularrari dagozkion erantzukizun guztien erantzule.

2. Titulartasunaren aldaketa izapidetzeko, bi alderdiek, hots, eskualdatu zein eskuratzen duenak, sinatutako eskualdaketaren agiria aurkeztu beharko da. Horretaz gain, nortasun agiria edo agiri baliokidea eta/edo, kasua denean, ordezkaritza egiaztatzen duena, baita jarduera zein instalazioetan aldaketarik ez dela gertatu adierazten duen titular berriaren aitortpena ere, hau da, salbuetsitako jarduera baimenean jasotako baldintzak berberak izaten jarraitzen dutela adierazten duena. Behin eskualdatzeak legeak xedatutakoa betetzen duela ikusita eta, kasua denean, beharrezko diren eta falta diren agiriak aurkezteko eskaera betetakoan, baimenaren titulartasuna aldatu egingo da.

3. Ikuskatze bisita egingo dute zerbitzu teknikoek, instalazioak salbuetsitako jarduera baimenera egokitzen diren edo ez egiaztatzeko.

4. Dokumentazio teknikoa aurkezteko premia egonez gero, hala eskatuko zaio interesdunari.

Hamabi. Idatz-zati berria gehitu da, hots, 9 zenbakikoa, honela dioena:

"9. idatz-zatia.- Eranskinean sartu diren jarduera nekagarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsu ez direnak burutzeko aurretiazko jakinarazpena.

3.02.37. artikulua- Xedea.

Eranskinean zerrendatutako jarduerak burutzeko egin behar den aurretiazko jakinarazpena arautzea du xede idatz-zati honek.

Idatz-zati honetan araututakoaren ondorioetarako, interesdunak, jarduera abiarazteko, udal administrazioari jakinarazi behar dizkion identifikazio datuak zein galdatutako beste agiri guztiak jasotzen dituen agiria da aurretiazko jakinarazpena, betiere, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70.1. artikuluan xedatutakoarekin zein araubide honen 3.02.39 artikuluekin bat.

3.02.38.. artikulua.- Aplikazio eremua.

Idatz-zati honetan arautzen den prozedura aplikatuko da eranskinean zerrendatutako kalterik eragiten ez duten jardueretan aritzeko.

Hain zuzen, honako jarduerak dira zerrendatutakoak:

1. Jarduerak irekitzea

Idatz-zati honetako eranskinean zerrendatutako jarduerak instalatzea, handitzea edo aldatzea, betiere, honako baldintza guztiak betetzen badira:

Aurretiazko jakinarazpena aurkezteko orduan aretoa martxan hasteko prest badago, hots, jardueran aritzeko lanik egin behar ez bada.

Dena delako jarduera erabilera baimendu edo onartua bada, plangintza orokorraren hiri-gintza arauarekin bat.

Gaueko ordutegirik ez badu, hau da, 22:00etatik 8:00etara, jarduera burutzen ez bada.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren arabera sailkatutako jarduera ez bada, eta martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuan jasotakoaren arabera izapidetu behar ez bada, ingurumenean duen eraginagatik neurri zuzentzaileak behar ez dituen jarduera delako.

Gainera, eranskinaren baitako jarduera motetako bat bada.

2. Jardueraren titularra aldatzea

Lizentziaren edo aurretiazko jakinarazpenaren bidez baimendutako jardueraren titulartasuna aldatzea, jarduera handitzea edo aldatzea ekartzen ez duena.

3.02.39. artikulua.- Betebehar teknikoak eta agiriei dagozkienak

1. Oro har, kasu guztietarako:

Udalak horretarako duen ereduaren bidez egingo da aurretiazko jakinarazpena; behar bezala bete eta galdatutako agiriarekin batera aurkeztu beharko da.



Ordezkarri bidez jarduten badu eskatzaileak, ordezkaritzaren egiaztagiria eta ordeztutako pertsonaren nortasun agiriaren edo identifikazio fiskalaren txartelaren kopia —pertsona fisiko edo juridikoa den kontuan hartuta— aurkeztu beharko da.

2. Bereziki, honako kasuetan:

2.1. Jarduerak irekitzea

Eranskinean zerrendatutako jardueren kasuan, aurretiazko jakinarazpenarekin batera, gutxienez, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

Teknikari eskudunak sinatutako agiria, gutxienez alderdi hauek jasotzen dituen:

Aretoa deskribatzeko memoria: eraikuntza eta banaketa ezaugarriak zehaztuko dira bertan, bai eta dauden instalazioak (haizegailuak, aire egokitua, konpresoreak, hozkailuak eta abar) ere. Burutuko den jarduera ere zehatz-mehatz deskribatuko da, ordutegia eta aurreikusitako zarata eta bibrazio mailak, zeinek dagokion udal ordenantza bete beharko baitute.

Hirigintza justifikazioa, jarduera berria dituen kategoriaren, kokapenaren eta aplikatzen zaion ordenantzaren arabera dagokion erabilera bateragarritasun erregimenarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Aurreikusitako jarduerarako Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean zein aplikatze-koak diren berariazko ordenantzetan eskatzen diren gutxieneko higiene eta osasun baldintzak betetzen direla justifikatzen duen agiria. Zenbat komun behar diren eta non kokatuko diren zehaztuko da, bai eta aretoko gela guztietarako aurreikusi den aireztapen sistema, naturala edo bortxatua, behar denaren arabera.

Eraikuntzaren Kode Teknikoaren DB-SI eta DB-SUA oinarritzko dokumentuetan suteetarako ezartzen diren segurtasunezko oinarritzko betekizunak betetzen direla justifikatzen duen agiria, baldin eta erabilera aldatzen delarik aurreko dokumentuan zehaztutako segurtasun baldintzei eragiten badie, eta jarduera berria ezartzen den guztietan.

Plano bornatuak eta eskalakoak, kokalekuarenak (E:1:500), oinplanoarena eta sekzioarena (E:1:100); bertan aretoaren neurriak eta ezaugarriak eta suteen kontrako babesgailuen kokapena agertuko dira.

Establezimenduaren koloretako argazkiak (barrualdekoak eta kanpoaldekoak), dagokien data jarrita.

Suteen kontra babesteko instalazioak onik zaintzeko kontratuaren kopia, baimendutako mantentze enpresa batekin sinatutakoa, Suteen Aurka Babesteko Instalazioei buruzko Araudiaren 13. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

2.2. Jardueraren titularra aldatzea

Eranskinean zerrendatutako jardueretan titularra aldatzekotan, aurretiazko jakinarazpenarekin batera, gutxienez, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

Jardueraren titulartasuna lagatzeko agiria, lehengo zein oraingo titularrek izenpetua.

Titular berriaren adierazpena non jarduera eta instalazioak aldatu ez direla jasotzen den, baita aurreko lizentzian edo jakinarazpenean jasotako baldintzek bere horretan dirautela ere.

Titular berriaren izenean dagoen suteen kontra babesteko instalazioak onik zaintzeko kontratuaren kopia, baimendutako mantentze enpresa batekin sinatutakoa, Suteen Aurka Babesteko Instalazioei buruzko Araudiaren 13. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren ildotik.

Eskualdatu nahi den irekitzeko baimena 1981 baino lehen eman bazen, eskudun teknikariak izenpetutako agiria aurkeztu beharko da non suteen kasurako Eraikuntzaren Kode Teknikoko DB-SI eta DB-SUA oinarritzko agirietan ezarritako oinarritzko segurtasun baldintzak betetzen direla justifikatuko baita.

3.02.40. artikulua- Oniritzia ematea.

Aurreko artikuluan aipatzen den eskudun teknikariak izenpetutako agiriak dagokion elkar-go profesionalaren oniritzia izan beharko du, aurretiazko jakinarazpena aurkezteko momentuan indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat.

3.02.41. artikulua.- Prozedura.

Prozedura honekin bat etorri beharko da aurretiazko jakinarazpenen zuzemena:



Jardueraren titularrak edo sustatzaileak Udalak horretarako duen ereduaren bidez egingo du aurretzako jakinarazpena; behar bezala bete eta 3.02.39. artikuluan galdatutako agiriarekin batera aurkeztu beharko da.

Jakinarazpena eta harekin doan dokumentazioa aztertuko dute udal zerbitzuek honakoak egiaztatzeko:

Agiri guztiak aurkeztu direla.

Garatu nahi den jarduerak aurretzako jakinarazpenaren prozedurari jarraitu behar diola.

Aipatutako azterketa hori egin ondoren, aurretzako jakinarazpenak Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70.1. artikulua xedatutakoak betetzen ez dituela eta 3.02.39. artikulua eskatutako agiriak ez dituela egiaztatzen bada, Udalak jarduera ez abiarazteko eskatu eta, gehienez, hamar eguneko epean, akatsak zuzentzeko errekerimendua egingo dio titular edo sustatzaileari, egintza berean.

Agiriak aztertu ondoren, burutuko den jarduera idatz-zati honen aplikazio eremutik kanpo dagoela egiaztatzen bada, jarduera ez abiarazteko eskatu eta, dagokion prozedurarekin bat, lizentzia edo baimena eskatzeko errekerimendua egingo dio titular edo sustatzaileari, egintza berean.

Jarduera aplikatu behar diren arauekin bat ez badator, titular edo sustatzaileari jakinaraziko dio Udalak, eta egintza berean, jarduera ez abiarazteko eskatuko; jada, hasia bada, jarduera bertan behera uzteko agindua ere eman dezake. Dena den, jarduerak egiaztatu zein ikuskatzearen inguruan udal administrazioari, oro har, dagozkion ahalmenak gauzatu ahaliko ditu.

Aurretzako jakinarazpena ordenamendu juridikoarekin zein idatz-zati honek xedatutakoarekin bat badator, dena delako jarduera burutu ahal da hura aurkezten den momentutik.

3.02.42. artikulua.- Aurretzako jakinarazpenaren eragina.

Aurretzako jakinarazpenak ez du eraginik izango, harekin doazen agiriak zuzenak ez badira, falta badira edo akasduak badira.

Aurretzako jakinarazpenak ez du balio izango haren aplikazio eremuaren baitan ez dauden jarduerak burutzeko.

Aurretzako jakinarazpenak ez du inolaz ere baimentzen legearen edo hirigintza plangintzaren kontrako jarduerak burutzea.

Aurretzako jakinarazpena udalean aurkeztu beharko da, dagokion hirigintza baimenarekin bat gauzatu diren obra eta instalazioak amaitu ondoren.

Aurretzako jakinarazpenak harekin batera eraman behar dituen agiri guztiak baldin bada-ramatza, horiek aurkezten diren egun berean abiarazi ahal da jarduera, udal administrazioaren eskumen diren egiaztatze, kontrol eta ikuskaritza ahalmenak gorabehera.

Lehenko titularrak eta titular berriak izenpetu beharko dute jardueraren titulartasuna aldatzeko aurretzako jakinarazpena, bestela jarduera horren ondoriozko erantzukizuna biena izango baita.

Jardueren titularrak jakinarazpenean jasotako baldintzak bete beharko ditu eta establezimendu zein instalazioek lasaitasun, segurtasun, osasungarritasun eta udal ordenantzek, hirigintza eta sektore planek zein aplikatu beharreko estatuko edo erkidegoko ordenamendu juridikoak galdatzen dituzten bestelako baldintzak betetzen dituztela bermatu.



Aurretzako jakinarazpenean eman beharreko datu guztiak ez emateak edo daturen bat nahiz eranstean diren adierazpen edo agirietakoren bat okerra edo faltsua izateak edo udal administrazioaren aurrean aurretzako jakinarazpena ez aurkezteak eskubideaz baliatzen jarraitzeko ezintasuna ekarriko du berekin, gertaera horien berri ziurra dagoen unetik bertatik, eska daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak gorabehera.

3.02.43. artikulua.- Aurretzako kontsulta.

3.02.41. artikuluan jasotako prozedurari ekin baino lehen eta dagokion eskabidea baliatuta, proiektatutako jarduera edo haren aldaketa, handitzea edo berritzea araubide honetako eranskinaren barrukoa dela eskatu ahalko du interesdunak.

3.02.44. artikulua.- Udalaren kontrol eta ikuskaritza araubidea.

Interesdunak erregistratutako aurretzako jakinarazpenaren kopia izango du eskatzen diotenean udal zerbitzuei erakusteko, eta zerbitzu horietako langileei jarduera ikuskatzeko eta haren gaineko egiaztapenak egiteko erraztasunak emango dizkie.

Indarrean dagoen legediak aitortutako ikuskatze zereginak burutuko dituzte zerbitzu teknikoek, hirigintza legedia betetzen dela egiaztatu eta ikertzeko.

Horretarako, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan araututako ahalmen eta zereginak izango dituzte.

3.02.45. artikulua.- Jarduera bertan behera gelditzea.

Udalak galdutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ahalko du edozein momentutan, baita jarduera bertan behera geldi dadila agindu ere, arrazoitutako ebazpenaren bidez, eskatutakoarekin bat ez badator.

3.02.46. artikulua.- Arau-hausteak eta zigorrak.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatutakoari jarraiki zehaztuko dira aurretzako jakinarazpenaren bidez udal administrazioari jakinarazi zaizkion jardueren arau-hausteen zigorrei dagozkienak, baita haien sailkapen zein jar daitezkeen isunak ere.

ERANSKINA

AURRETZAKO JAKINARAZPENAREN BEHAR DUTEN JARDUEREN ZERRENDA

Eranskin honen barruan sartutako jarduerak diren taldearen baitako berriazko baldintza guztiak bete beharko dituzte aurretzako jakinarazpena behar duten jardueratzat hartuak izango badira.

BULEGOAK, BIDAIA AGENTZIAK, HIGIEZINEN ETA ASEGURU AGENTZIAK

Azalera erabilgarria < 500 m²

Su karga < 100 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

BULEGOEN ANTZEKOAK DIREN PROFESIONALEN BULEGOAK

Ekipamendu elektromekanikorik gabea, edo ekipamendu hori duena, baina salbuesteko jardueratzat hartua izan dadin justifikatzen duten ezaugarriak dituena.

Azalera erabilgarria < 500 m²

Su karga < 100 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

SALTOKIAK, ORO HAR

Azalera erabilgarria < 300 m²

Su karga < 100 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Produktu arriskutsu eta/edo sukoiak biltzen dira < 40 Kg

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

Animalia bizidunen saltokiak izan ezik

Elikagaien salmenta, manipulaziorik gabekoa

Azalera erabilgarria < 150 m²

Su karga < 200 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Hotz-biltegia bolumen honetarako: < 15 m³

Konpresore gelarik gabea

Mota horretako jardueren adibide dira ultramarinoak, fruta dendak, okindegiak (saldu baino ez dutenak), urdaitegiak, produktu ontziratutak, gozoki dendak eta abar.

Biltegiak

Azalera erabilgarria < 100 m²

Su karga < 200 Mcal/m²

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Produktu kimikoak, fitosanitarioak, margoak, artifizio lehergaiak, kautxuzko produktuak, plastikokoak, erregai solidoak, likidoak eta gaseosoak eta/edo produktu arriskutsuak biltzen diren biltegiak izan ezik.

Ile-apaindegi eta edertasun-aretoak

Azalera erabilgarria <300 m²

Su karga < 100 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Produktu arriskutsu eta/edo sukoiak biltzen badira <40 Kg

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

Laser edo argi pultsatuarekin egiten diren tratamenduak, piercing, solarium, mikropigmentazio edo tatuaiarekin zerikusia dutenak dituztenak izan ezik.

Masaje aretoak eTA/Edo eskuzko errehabilitazioa egiten dutenak (fisioterapia)

Azalera erabilgarria <100 m²

Su karga < 100 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Produktu arriskutsu eta/edo sukoiak biltzen badira <40 Kg

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

ERREGAI biltegia

Erregai likido eta/edo gaseoso pribatuak gordetzeko jardueraren titularrek bakarrik erabiltzeko, gehienez 999 litrokoak.

FOTOKOPIA DENDA

Azalera erabilgarria <100 m²

Su karga < 100 Mcal/m²

Ordutegia: 08:00 - 22:00

Produktu arriskutsu eta/edo sukoiak biltzen badira <40 Kg

Klimatizazio instalazioa bolumen honetarako: < 500 m³

Hamahiru. 3.02.29 artikuluari zenbaki berria eman zaio eta orain 3.02.47 artikulua da:

Hamalau. Hirugarren sekzioko titulua berridatzi da, 3.02.30 artikuluari beste zenbaki bat jarri eta aldatu da, honela gelditu da:

"Hirugarren Sekzioa: Lizentziak, baimenak eta aurretiazko jakinarazpenak ematea, etetea, berritzea, baliogabetzea, iraungitzea, luzatzea, aldatzea eta eskualdatzea.

3.02.48. artikulua.- Ematea.

1. Baimen eta lizentziak jabetza eskubidea salbu delarik eta inoren eskubideei kalterik ez eragitekotan ematen direla ulertuko da. Ezin izango dira horiek argudiatu onuradunek beren jardueren ondorio diren erantzukizun zibil eta penaletatik libratzeko edo erantzukizun hori gutxitzeko.

2. Obra edo jarduera baldintzen inguruko lizentziek horiek dirauten bitarteko indarraldia izango dute.

3. Jarduera pertsonalen inguruko lizentziak epe zehatzera mugatu ahalko dira.

4. Jabari publikoko ondasunen gaineko jarduera baimenduak horien titularrek burutu beharko dituzte, hirugarren batek ezingo du ordeztu, baimenean bertan edo ondorengo egintzaren batean adierazi edo horretarako baimena ematen ez bada. Ordezkaritza onar-



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

tuz gero, ordezkariak berak lizentzia lortzeko beharrezko diren baldintza guztiak bete beharko ditu.

Hamabost. 3.02.31. artikuluari zenbaki berria eman eta aldatu da, honela gelditu da:
"3.02.49. artikulua.- Bertan behera uztea eta baliogabetzea.

1. Bete behar dituzten baldintzak betetzen ez dituztenean indarrrik gabe geldituko dira lizentziak.

2. Lizentziak baliogabetu ahalko dira emateko orduan zeuden inguruabarrak desagertzen direnean edo hura eman zen garaian egokitu izan balitz lizentzia ukatzeko arrazoi izango zatekeenik egokitzen bada.

3. Udalak lizentzia baten ondorioak bertan behera gelditzeko xedatu eta gauzatzeko agindua eman ahalko du, edozein motakoa dela, haren edukia hirigintza arau-hauste larri agerikoa denean, udal zerbitzu teknikoan iritzi, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legeak eta lurzoruari buruzko legearen testu bategina onesten duen 2/2008 Errege Dekretuak dioenarekin bat.

Hamasei. 3.02.32 artikuluari zenbaki berria eman zaio eta orain 3.02.50. artikulua da

Hamazazpi. 3.02.33. artikuluari zenbaki berria eman eta aldatu da, honela gelditu da:
"3.02.51. artikulua.- Iraungitzea eta luzapenak.

1. Lizentziak honako kasuetan joko dira iraungitzat:

a) Eman den egunetik sei hilabete pasa badira eta obrari ekin ez bazaio, edo ekin bazaio ere, sei hilabetez edo gehiagoz eten egin bada.

Obren erritmo normala moteltzea berariazkoa ez den etetetzat jo ahalko da, eta Udalari dosierraren barruan lizentzia iraungitzat jotzeko ahalmena emango dio, dagozkion zerbitzu teknikoek aldeko txostena eman ondoren, zeinetan eragindakoei entzungo zaiela bermatuko den.

Lizentziaren indarraldia, gehienez, hasieran eman zen epeaz luzatu ahalko da eskatzaileak eskaera justifikatua aurkezten badu, eta behin baino ez.

b) Lizentzian obra amaitzeko adierazi den epea pasatu bada.

Iraungitze horrek ez ditu ondorioak izango, ezinbesteko arrazoiak edo agintari eskudunaren aginduz horrela izan dadila frogatu bada, baina horretarako epea amaitu aurretik egiaztatu beharko da hori era fede-emailez.

2. Iraungitzat joko dira sailkatutako jardueren lizentziak, interesduna entzun ondoren, jarduera lizentzia eman dela jakinarazi eta urtebeteko epean obra lizentzia eskatu ez bada, kasua hori bada, edo irekitzekoa, salbu eta titularrari egotzi ezin zaion arrazoiren bat bada.

3. Iraungitzat joko dira sailkatutako jarduera irekitzeko lizentziak, interesduna entzun ondoren, jarduera urtebetez, etenik gabe, burutzen ez bada, salbu eta obrak badaude, eta hori bada kasua aurreko paragrafoetan xedatutakoari jarraituko zaio, edo ezinbesteko arrazoiak.

Iraungitze horrek jarduera lizentziaren iraungitzea ekarriko du harekin.

4. Salbuetsitako jardueren baimenak (martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuan jasota) iraungitzat eta bertan behera geldituko dira, interesduna entzun ondoren, jarduera sei hilabetez, etenik gabe, burutzen ez bada, salbu eta obrak badaude edo ezinbesteko arrazoiak.



5. Aurretiatzko jakinarazpenaren bidez aitortutako eskubidea iraungitzat joko da, titularrari entzun ondoren, hari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, honako kasuetan:

a) Aurretiatzko jakinarazpena aurkeztu denetik sei hilabete pasa badira jarduera abiarazi gabe.

b) Jarduera burutzeari sei hilabetez, jarraian, utzi bazaio.

Hamazortzi. 3.02.34 artikuluari zenbaki berria eman zaio eta orain 3.02.52. artikulua da

Hemeretzi. 3.02.35 artikuluari zenbaki berria eman zaio eta orain 3.02.53. artikulua da

II. KAPITULUA. INGURUMEN SEKTOREARENTZAKO NEURRIAK

2. artikulua. Zabortegi Zerbitzuaren Araudia aldatzea.

Bat. Hamargarren artikuluko lehen paragrafoa honela idatzi da:

"Hondakinak Gardelegiko zabortegian utzi ahal izateko, Udalak hondakina onartzen duela jasotzen duen agiria beharko da.

Bi. Hamargarren artikuluko bigarren paragrafoa honela idatzi da:

"Hondakinak Gardelegiko zabortegian onartzea, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak xedatutako prozeduraren arabera gauzatuko da; hondakinak zabortegira eramanda eta betegarriak gauzatzearen inguruko araudia onetsi zuen dekretu horrek. Prozedura horren fa-seak dira: oinarritzko ezaugarrien berri jasotzea, adostasun frogak eta tokian bertan egiaztatzea.

Hiru. 10.1.3 idatz-zatian "Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren V. eranskina" kendu eta "otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua" jarri da.

Lau. 4. idatz-zatian "Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuaren V. eranskina" kendu eta "otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua" jarri da.

3. artikulua. Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean jasota dagoen udalaren Ostalaritza Ordenantzaren aldaketa.

Bat. 5.04.13.1 artikulua aldatu eta honela gelditu da:

"Sailkatutako jarduera bat ezarri nahi duen pertsona fisiko edo juridikoak Udalari aurrez dagokion proiektua onartzeko eskaera egin behar dio, jarduera baimena deritzona lortu ahal izateko.

Ondorio horietarako, teknikari eskudunak izenpetutako honako agiriak erantsi beharko zaizkio eskabideari: proiektu teknikoa eta memoria, non jardueraren ezaugarriak, ingurumenean izan dezakeen eragina eta proposatzen diren neurri zuzentzaileak azaldu beharko baitira, baita horien eraginkortasun-maila eta segurtasun-bermea ere.

Halaber, jarduera lizentziaren eskaera aurkezten den egunetik hasita 10 eguneko epean, obra lizentzia eskatu beharko da.

4. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko Hondakinak Biometanizazioz eta Konpostatzez Tratatzekeo Lantegia Ustiatzeko Araudiaren aldaketa.

Bat. Hirugarren eta zazpigarren paragrafoak honela idatzi dira:

Hirugarren paragrafoa: "Arabako Lurralde Historikoaren lurralde-eremuan helbidea duten pertsona fisikoek nahiz juridikoek sortutako hiri-hondakinak edo antzekoak direnean, beharrezkoa izango da aldeaz aurretik Gasteizko Udalak hondakina onartzen duela dioen agiria erdiestea."

Zazpigarren paragrafoa: "Udalak hondakina onartu edo hartzeari uko egingo du. Onartuz gero, baimen horretan hondakinak emateko baldintzak adieraziko dira, baita baimendutako deskarga-maiztasuna ere.



5. artikulua. Gasteizko Garbiketari eta Hondakinen Bilketa eta Garraioari buruzko Ordenantzaren aldaketa.

Bat. 40. artikulua honela idatzi da:

"40. artikulua.- Debekuak.

"Espazio eta bide publikoen garbitasun eta txukuntasuna gordetzeko xedez, kartelak, pankartak, banderatxoak eta eranskailuak jartzea, orri-zortzirenak banatzea eta kapitulu honetan araututako edozein publizitate jarduera burutzea debekatua dago, salbu eta berriaz adierazitako tokietan eta alde zurretik Udalarari jakinarazita.

Era berean, titulu honetan araututako publizitate jarduera guztiak debekatuak daude hirigintza plangintzak sailkatutako eraikinetan, Euskal Kultur Ondarearen barruan historiko-artistiko gisa sailkatu edo inbentariatutakoetan eta antzekoetan. Eraikinean burutzen diren jarduerekin zerikusia duten pankartak edo errotuluak eta eraikin horiek onik zaintzea, berritzea edo birgaitzearekin zerikusia dutenak izan ezik.

Bi. 41. artikulua honela idatzi da:

"41. artikulua.- Aurretiazko jakinarazpena.

Ordenantza honen ondorioetarako, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. bis artikuluekin bat, interesdunek administrazio publiko eskudunari haiek identifikatzeko datuak zein galdatzen zaizkien bestelako betebeharren berri emateko baliatzen duten agiria da aurretiazko jakinarazpena; datu horiek galdatzen zaizkie Udalak berriaz baimendutako tokietan publizitate elementuak ipini edo pintadak egin ditzaten baimentzeko, ordenantza honen 47.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurretiazko jakinarazpenak Udalak berriaz baimendutako tokietan publizitate elementuak ipintzea edo pintadak egitea, ordenantza honen 47.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, ahalbidetuko du, aurkezten den egunetik bertatik, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko duen ahalmena gora behera, betiere, jakinarazpenak 43. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen baditu.

Aurretiazko jakinarazpena ez egitea edo bera eskuratzeko atal honetan galdatutako baldintzak ez betetzea ordenantza honetan xedatutakoaren kontra jotzen duen ez-egitea da, zigortzeko araubideari dagokionez IX. kapituluaren ezarritakoaren ondorioetarako.

Era berean, aurretiazko jakinarazpenarekin batera ematen den edozein datu, egindako adierazpen edo aurkeztutako agiritan funtsezkoa den okerra, faltsutasuna edo ez-egitea egiten bada, edo hura aurkezten ez bada, 71. bis artikuluan ezarritako ondorioak izango dira."

Hiru. 42. artikulua honela idatzi da:

"42. artikulua.- Hirigintza lizentzia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.o) artikulua xedatutakoarekin bat, propagandako kartelak eta panelak bide publikotik ikusteko moduan jartzeko, baldin eta kartel eta panel horiek egiturazko euskarria den elementu baten kontra edo gainean ipini badira, hirigintza lizentzia eskatu beharko da. Ondorioz, kasu horietan ez da aurretiazko jakinarazpena egin behar, baina kapitulu honetan jasotako baldintzak eta araututako betekizunak bete beharko dira.

Lau. 43. artikulua honela idatzi da:

"43. artikulua.- Aurretiazkoa jakinarazpenaren betekizunak publizitatea ipini edo pintaketak egiteko orduan.

Pankartak edo banderatxoak eta beste publizitate elementuak jarri edo pintaketak egin ahal izateko aurretiazko jakinarazpenak honakoa jaso beharko du:

Publizitate elementuak edo pintaketak egingo dituzten pertsona fisiko edo juridikoak identifikatzeko datuak.

Pankarten, banderatxoaren edo bestelako publizitate elementuen neurriak.

Publizitate elementu horiek jarri edo pintaketak egin nahi diren tokia.

Publizitate elementu horiek zenbat denboraz izango dira toki horretan.



Publizitate elementuak epearen barruan kentzeko ardura, kasua denean, bide publikoan edo haren egitura elementuetan eragindako kalteak konpontzekoa, bide publikoko espazioak zikindu badira horiek garbitzekoa eta elementuak jartzeak eragindako balizko kalte-ordainak ordaintzekoa duenaren konpromisoa.

Pintaketan kasuan, pintaketa egin nahi den orubeetako hesien, gauzatzen ari diren obren itxituren, ikusten diren mehelinen edo behin-behineko elementuen jabeak emandako baimena."

Bost. III. kapituluko II atala honela idatzi da:
"II. atala.- Publizitate elementuak jartzeko modua"

Sei. 44. artikulua honela idatzi da:

44. artikulua.- Publizitate elementuek bete beharrekoak.

Udalak berariaz baimendutako tokietan publizitatea jartzeko honakoak bete beharko dira: Kartelaren publizitateak ez du baimendutako tokiko azalaren ehuneko hogeia baino gehiago beteko.

Baimendutako propaganda baino ezin izango da agertu pankarta eta banderatxoetan, beraz, debekatua dago eskabidean eskatu ez den edozein eta azaleraren ehuneko hogeia baino gehiago betetzen duena.

Debekatuta dago pankarta edo banderatxoak zuhaitzei helduta jartzea, lotzekoa edozein delarik.

2. Bide publikoko egitura elementuei lotutako pankarta eta banderatxoek honakoak bete beharko dituzte:

Farolei lotutakoak: Farolaren puntu bakarrean eutsiko dio. Euskarria ezingo da metalezkoa izan. Debekatuta dago pankarta edo banderatxoak farola artistikoetan jartzea.

Pankartetan zulotxoak egin beharko dira haizearen eragina gutxitzeko, edozein modutan, zulatutako azalera hori ezin izango da % 25 baino txikiagokoa.

Nolanahi ere, bide publikoko punturik baxuenetik, gutxienez, 5 metrora jarri beharko da.

Zazpi. 45. artikulua honela idatzi da:

"45. artikulua.- Bermea.

Udalak bermea eratzeko eskatu ahalko du publizitate elementu horiek bide publikoan jarri edo banatzeagatik, hain zuzen, espazio publikotik hondakinak edo zikinaria eragin dezaketen elementuak garbitu edo kentzeak eragin ditzakeen gastuei dagokien zenbatekoaren arabera, eska daitekeen erantzukizuna gorabehera.

Udalak informazioa zabaltzeko espazio eta euskarriak hornituko ditu hirian zehar. "

Zortzi. 46. artikulua honela idatzi da:

"46. artikulua.- Kentzea

Pankartak eta banderatxoak horiek jartzearen ardura izan edo jartzea sustatu duten pertsonak kendu beharko dituzte, aurretiazko jakinarazpenean adierazitako epea amaitu bezain azkar. Hala egin ezean, udal zerbitzuek kenduko dituzte eta arduradunei leporatuko zaizkie emandako zerbitzuaren kostuak, eska lekizkiekeen bestelako erantzukizunak gorabehera. "

Bederatzi. 47. artikuluko 2. idatz-zatia honela idatzi da:

"Aurreko atalari dagokionez salbuespen izango dira honakoak:

Orubeetako hesietan, gauzatzen ari diren obren itxituretan, ikusten diren mehelinetan edo behin-behineko elementuetan egiten diren pintaketak, aurretiazko jakinarazpena behar dutenak ordenantza honen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera eta jabeak berariaz baimendutakoak.

Udalak, edozein momentutan eta dagozkion udal zerbitzuen bidez, pintaketak ezabatu edo kendu ahalko ditu."

Hamar. 54,3. artikulua honela idatzi da:

"Edozein motako hondakinak eta hiri hondakin solidoak bildu eta aprobetxatzea debekatua dago, baita bide publikoan bilketa zerbitzuek jasotzearen zain dauden edozein hondakin gai hautatu, sailkatu eta bakantzea ere, baimendutako kudeatzaileek burututakoa izan ezik.



Hamaika. Udal Ordenantzaren 75. artikulua kendu egin da.

Hamabi. 91,3. artikulua honela idatzi da:

"Edozein motako hondakinak eta hiri hondakin solidoak bildu eta aprobetxatzea debekatu dago, baita bide publikoan bilketa zerbitzuek jasotzearen zain dauden edozein hondakin gai hautatu, sailkatu eta bakantzea ere, baimendutako kudeatzaileek burututakoa izan ezik.

Hamahiru. 94,1. artikulua honela idatzi da:

"Hondakin bereziak biltzeko programatutako zerbitzua, halakorik badago, interesdunak eskatu beharko du aldez aurretik, eskatzean hondakin mota eta bolumena adierazi beharko duela, eta egoki bada, Udalak bilketa egingo den eguna eta gutxi-gorabeherako ordua adieraziko du."

Hamalau. 129.2. artikulua honela idatzi da:

"129.2. artikulua.- Debekuak.

2. Edozein hiri edo industria hondakin aire zabalean, galdaretan eta berogailuetan erretzea debekatua dago, dagokion jarduera baimena edo lizentzia gorabehera."

Hamabost. . 131. artikulua honela idatzi da:

"131. artikulua.- Hondakinak uztea

1.- Pertsona fisiko eta juridikoek hondakinak tratatu edo kentzeko instalazioetan hondakinak utz ditzaten onartu ahalko du Udalak: jarraian, denbora baterako edo noizean behin.

2.- Hondakinak onartuak izan daitezen, dagokion eskabidea helarazi beharko die erabiltzaileak udal zerbitzuei. Behin hori aztertu ondoren, onartzea egoki den edo ez erabakiko da, baita, onartzen bada, horretarako baldintzak ere.

3.- Hondakinak tratatzeko udal instalazioetan hondakinak uzteari eta onartzeari buruzko araudiak xedatuko ditu Udalak.

Hamasei. 147,1. artikuluko g) idatz-zatia honela idatzi da:

"Kartel, pankarta, banderatxo, eranskailu edo antzekoak —gehienez 10 ale— aurretiazko jakinarazpena egin gabe edo Udalak berariaz baimendu edo ezarritako tokietan jartzea."

Hamazazpi. 148,1. artikuluko g) idatz-zatia honela idatzi da:

"Kartel, pankarta, banderatxo, eranskailu edo antzekoak —gehienez 50 eta 11 ale bitartean— aurretiazko jakinarazpena egin gabe edo Udalak berariaz baimendu edo ezarritako tokietan jartzea."

Hamazortzi. 148.1. artikuluan n) idatz-zatia gehitu da, honela idatzia:

"148.1.n) Ordenantza honetan araututako aurretiazko jakinarazpenaren baldintza edo betekizunetako bat ez betetzea."

Hemeretzi. 149.1. artikuluko d) idatz-zatia honela idatzi da:

"Ordenantza honetako I. kapitulutik III.era doazenetan aurreikusitako jardunak burutzea dagokion aurretiazko jakinarazpena egin gabe, hain zuzen, haien berezko xedapenekin bat, hori behar duten jardunak."

Hogei. 149.1. artikuluko g) idatz-zatia honela idatzi da:

"Kartel, pankarta, banderatxo, eranskailu edo antzekoak —gehienez 50 ale— aurretiazko jakinarazpena egin gabe edo Udalak berariaz baimendu edo ezarritako tokietan jartzea."

6. artikulua. Telekomunikazio Sareen Instalazio Irrati-elektrikoak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa.

Bat. 12. artikuluko 2. idatz-zatia honela idatzi da:

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 56. artikuluan eta ondorengoetan xedatutako araudiari edo hori ordeztzen duenari jarraitu beharko diote telekomunikazio sareen instalazio irrati-elektrikoek.



Etxebizitza eraikinaren beheko solairuan edo salbuetsitako eraikinetan dauden instalazioek, berriz, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuan edo bera ordeztzen duen araudian salbuetsitako jardueretarako xedatzen den erregimenari jarraitu beharko diete.

Bi. 12. artikuluko 3. idatz-zatia honela idatzi da:

"Lizentzia edo baimen eskabidea, kasua denean, I. eranskinean (2. eta 3. idatz-zatietan) ezarritako gutxienekoak betetzen dituen dokumentazio teknikoarekin batera aurkeztu beharko da."

Hiru. 12. artikuluko 4. idatz-zatia honela idatzi da:

"Udal zerbitzu teknikoek dokumentazio teknikoa egiaztatu ondoren eta aurkeztutako alegazioak, halakorik balego, ikusi ondoren dagozkion neurri zuzentzaile edo osagarriak ezar ditzake."

III. KAPITULUA. MERKATARITZA SEKTOREARENTZAKO NEURRIAK

7. artikulua. Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzaren aldaketa.

Bat. Ordenantzaren atarikoak honela idatzi da.

"ATARIKOA

Txikizkako salmentaren ezaugarrietako bat ondasunak eta zerbitzuak azken kontsumitzaileari saltzea da. Merkataritza establezimendu baten barruan nahiz kanpoan egin daiteke. Testu honen bidez merkataritza establezimendutik kanpo egiten den salmenta arautu nahi da, etengabea eta finkoa ez dena eta leku zein garai jakinetan saltoki edo instalazio desmuntagarrietan egin ohi dena. Jarduera horri "kaleko" deritzo, eta teknikoki "egonkorra ez den salmenta".

Merkataritza mota horrek historian zehar garrantzi ukaezina izan badu ere, gaur egun ez du behar besteko osperik, hartu duen eitea eta jarduteko era direla eta kutsu negatiboa baitu.

Gure asmoa egonkorra ez den salmenta -kaleko salmenta- egoki zehaztea eta jarduteko prozedura eta baldintzak arautzea da, salmenta mota horrek ospe eta berme handiagoak izan ditzan, gure eragin eremuari dagokionez zeregin duina bete baitezake merkataritza banaketaren alorrean.

Hori dela eta neurriak hartu behar dira, batetik, merkataritza jarduera hori merkataritza banaketaren sektorea arautzen duten oinarri orokorrei jarraituz gauzatuko dela bermatzearren, eta alderdi jakin batean dagoen eskaintza eskaerari egokitu zaiola, eta bestetik, kontsumitzaileen bidezko eskubideak aldeztarren eta jarduera garatzen den bide publikoan horrekin bat egiten duten gainerako erabilerak antolatzearren.

Azken finean, Salmenta ibiltaria arautzeko udal ordenantza honek jarduera ekonomikoaren garapena modernizatu eta ahalbidetzeko balio dezan zein kontsumitzaileei zein salmenta ibiltariaren profesionaleri zerbitzuaren ahalik eta berme handiena eskaini dakien da xedea, zerbitzu jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzko legearen espirituari jarraiki.

Bi. 5. artikulua honela idatzi da:

5. artikulua.- Aurretizko baimena.

Ordenantza honetan araututako jardueretarako aurretiaz udal baimena lortu beharko da; jarduera jakin bakoitzerako ezartzen diren berariazko araudietan ezarritako betekizun eta baldintzak bete beharko dira baimena emateko, eta bertan zehaztuko dira baimenaren mugak. Izan ere, salmenta ibiltarian aritzeko baimen kopurua mugatua da, horretarako lurzoru publiko gutxi dagoelako.

Kaleko salmentan aritzeko eskaerarekin batera baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Hiru. 7. artikulua honela idatzi da:

"7. artikulua.- Eskabideak ebatzea.

Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria burutu ahal izateko, dagokion udal baimena eskuratu beharko da, debekatua baitago baimen hori gabe aritzea.



Udal organo eskudunak ebatziko ditu kaleko salmentarako eskaerak, gehienez ere bi hilabeteko epean, agiri guztiak aurkezten direnetik, herri interesa kontuan hartuta. Administrazioak ebazpen horren berri eman beharko dio beti interesdunari.

Epe hori igarota, eta kasua denean haren luzapena ere, berariazko ebazpenik eman ez bada, baimena emandakotzat joko da."

Salmenta ibiltaria burutzeko udal baimena besterenezina izango da eta, gehienez, hiru urteko iraupena izango du Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren 20.2) artikulua jasotzen dituen aldizkako azoka ibiltarien kasuan. Aldi horretan inbertsioak amortizatu eta inbertitutako kapitalen ordainketa ekitatiboa lortzen dela ulertzen baita.

Baimenean berariaz zehaztuko da zein lekutan eta zein garaitan sal daitekeen, bai eta zer sal daitekeen ere. Identifikazio txartel bat izango da baimenaren adierazgarri, zeina saltokian edo saltzeko erabiltzen den ibilgailuan ikusteko moduan jarrita egongo baita.

Baimenaren titularra hilko balitz, lehen graduko senideek izango lukete beste baimen bat lortzeko lehentasuna.

Baimen horiek ezeztatu ahalko dira, baldin eta interes orokorreko arrazoi justifikaturik bada, eta aplikatu beharreko indarreko legerian ezarritakoa betetzen bada; hori dela eta ez da eskubiderik izango kalte-ordainik edo bestelako ordainik jasotzeko."

Lau. 8. artikulua honela idatzi da:

"8. artikulua.- Baimena emateko prozedura.

Hainbat ordenantza zerbitzu jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legea egokitzeko den ordenantzaren lehen xedapen iragankorrrak xedatutakoarekin bat emango dira, gardentasuna, inpartzialtasuna eta bazterkeria eza bermatuz. Era berean, gizarte politikarako helburuak, ingurumena babestekoak zein interes orokorreko beste edozein ezinbesteko arrazoi aintzat hartu ahalko da horiek emateko, hain zuzen, Tokiko Gobernu Batzarrak xedatuko duena."

Bost. 10. artikulua honela idatzi da:

"10. artikulua.- Baimena ematekotan bete beharrekoak.

1) Kaleko salmentan jarduteko baimena lortzeko eskatzaileek ondokoak bete beharko dituzte:

a.- Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea, edo Europar Batasuneko estatu kideetako eskatzaileen kasuan baliokide dena.

b.- Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea, edo Europar Batasuneko estatu kideetako eskatzaileen kasuan baliokide denean.

c.- Salgai dituen produktuei eta saltokiei buruzko berariazko araudietan ezarritako higie eta osasun betebeharrak nahiz kontsumitzaileak babestekoak betetzea.

d.- Udal zerga ordenantzek ezartzen dituzten tasa edo kanonak ordaintzea, bai eta diru bermeak ere.

e.- Saltzailearen bizilekua zein den jakinaraztea, eta kontsumitzaileek zein helbidetan aurkez ditzaketen beren kexak.

f.- Europar Batasunaz kanpokoek atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako dagokion egoitza eta lan baimena eduki beharko dute.

g.- Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izatea.

h.- Azoka mota bakoitzarentzat ezartzen diren gainerako betebeharrak, salgaien arabera.

i.- Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea.

2) Baldintza horiek betez gero ematen diren baimenak pertsonalak eta besterenezinak izango dira; debekatuta izango da, beraz, beste bati ematea."

Sei. 13. artikuluko 1. idatz-zatia honela idatzi da:

"1) Aldizkako azokak:

Udal administrazioak horretarako berariaz zehaztutako lekuetan egiten diren kaleko saltzaileen elkarretaratzei deritze horrela. Azoka horiek aldizka egingo dira, indarreko legeriak ezarritako mugen barruan; oraingo muga astean bi egunekoa da.

Azoka berriak sortzea erabakiz gero, edo daudenak lekuz aldatzea, alderdi hauek zehaztu beharko dira: kokapena, kudeaketa mota, zein egun-ordutan izango den, zenbat baimen



emango den gehienez, zein produktu saldu ahalko den, eta organo eskudunak ezartzen dituen gainerako betebeharrak.

Tradizioz Udal baimenarekin jarri ohi diren azoka txikiek horrela egiten jarraitu ahalko dute betiko toki eta egunetan, orain arte saltzen ziren produktuak saltzeko, ez bada interes orokorreko arrazoiak direla eta baliogabetu behar.

Zazpi. 14. artikulua honela idatzi da:

"14. artikulua. Salgaiak

a) Ez da baimenik emango ezarri beharreko lege eta arauen aurka dauden produktu salmentetarako.

b) Baimenaz merkaturatu daitezkeen produktuak mugatzerik izango da; osasun aginte eskudunek zenbait produkturen salmenta debekatu ahal dute higiena, osasun publikoa eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasuna direla eta.

c) Udal baimena zein produktutarako eman zaion, hori baino ez du saltzerik izango saltzaileak.

d) Eskumena duen udal organoak gehienez eman daitekeen baimen kopurua ezarri ahalko du hiri ingurunea babesteko xedez, eta azoka bakoitza arautzen duen dekretu edo ebazpenean egingo da hori.

Zortzi. 17. artikuluko 1. idatz-zatia honela idatzi da:

"1) Tratatu gabeko elikagaien saltokiak:

Tratatu gabeko jakitzat joko dira saltzeko manipulaziorik behar ez duten produktuak, edo izatekotan zatitzea baino ez. Hau da, fruta, barazki, gazta, hestebeteak, kontserbak, eta abar.

Baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Estalpekoak diren eta zoru gogor zein jarraitua (asfaltoa, hormigoia...) dutenetan baino ezingo dira egin Edo bestela, salgai dauden produktuak kutsa daitezen ekiditen duen toldoa edo beste motako estalkia duten postuetan.

2. Saltokietatik hurbil edateko ur korronea izango dute, gehienez ere 100 metrora, eta bi sexuentzako komunak, garbitzeko behar den materialaz hornituak.

3. Beharrezkoa bada jakiak hozkailuetan gorde eta erakutsiko dira.

4. Janariak ukitu behar dituzten langileak oso zorrotzak izango dira une oro beren garbitasunari dagokionez eta Elikagaien Higieneko Prestakuntza Ziurtagiria eduki beharko dute, edo baliokidea Europar Batasuneko beste herrialderen bateko saltzaileak badira.

5. Nolanahi ere, salgai jarritako produktuei ezarri beharreko higiena eta osasun araudiak bete beharko dituzte saltokiek.

6. Enpresa baimenduen jakiak bakarrik saldu ahalko dira, etiketadunak; halakorik ez badute (artisansu produktuetan baino ez) Osasun Erregistroko Zenbakia erakutsiko da leku ikusgarri batean, edo baliokidea Europar Batasuneko beste herrialderen batean landutako produktuak badira.

7. Jaki guztiak produktu bakoitzarentzat elikagaiei buruzko legerian ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte beti ere."

Bederatzi. 17. artikuluko 2.14. idatz-zatia honela idatzi da:

"14. Janariak ukitu behar dituzten langileak oso zorrotzak izango dira une oro beren garbitasunari dagokionez eta Elikagaien Higieneko Prestakuntza Ziurtagiria eduki beharko dute, edo baliokidea Europar Batasuneko beste herrialderen bateko saltzaileak badira."

Hamar. 19. artikulua honela idatzi da:

"19. artikulua.- Betebeharrak

Honako hauek dira saltzaile ibiltarien betebeharrak:

1. Salmenta saltoki edo instalazio desmontagarri eta erraz garraiatzeko modukoetan egin beharko da, edota kamioi-dendetan; aplikatzekoak diren arau eta legeetan ezarritako baldintzak eta udal administrazioak eskatutakoak bete beharko dituzte. Edonola ere, segurtasun, osasun eta apaindura baldintza egokietan egon beharko dute. Salgai guztiak behar bezala babesturik erakutsi beharko dira jendaurrean, eta lurretik gutxienez 60 cm-ra, salbu eta altuera, pisua edo bestelako ezaugarriak direla kausa arazoren bat sortuko balute, udalak horretarako baimena emanaz gero. Esleitu zaien lekua bakarrik okupatuko dute saltokia eta salgaiak jartzeko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

2. Saltokien titularrek erraz ikusteko moduko tokian jarriko dute Udalak emandako baimena.

Udal baimenik gabe saltzen arituz gero, edo baimendu ez direnak salduz gero, saltokia kendu egingo da, kautelazko neurri gisa, eta behar izanez gero, merkantzia kendu edo bahituko; horretaz gain zigor-dosierra abiaraziko da.

3. Kontsumitzaileen defentsa eraginkorra bermatzearen, saltzaileek ordainagiria edo erosketaren ordezlagiria emango diete eskatzen dutenei; bertan datu hauek agertuko dira: saltzailearen izena eta ohiko helbidea, erosi den salgaia eta salerosketaren zenbatekoa. Izan ere, datu horiek eskuratu den ondasuna dela eta erreklamatu ahal izatea erraztuko dute. Horretaz gain, erraz ikusteko moduko kartel baten bitartez adierazi beharko dute kontsumitzaileek erreklamazioak non aurkeztu ahal dituzten.

4. Merkataritzako jarduera egiten dihardutela, saltzaileek indarreko legerian xedatutakoa bete beharko dute uneoro, bereziki alor hauei dagozkienak: osasun publikoaren babesa, merkataritza, merkatuaren diziplina, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa, zerga araubidea eta Gizarte Segurantza.

5. Saltokien titularrak edo pertsona baimenduak edo lehen zein bigarren mailako senideak arduratuko dira saltokiez azokak zabalik dirauen orduetan. Pertsona juridikoek nortzuek duten baimena zehaztu beharko dute; enpresako bazkide edo enpresaren konturako langileak izan beharko dute horiek. Debehatuta dago saltokian baimenik ez duten pertsonak egotea.

6. Saltzaileak udal langile edo agintariak eskatzen dieten dokumentazioa aurkeztu beharra izango dute eta saltoki edo instalazioetara sartzen utzi beharko diete ikuskatu eta kontrolatu dezaten.

7. Debehatuta dago megafonia edo tresna akustikoak erabiltzea.

8. Saltzaileek beren produktuen kalitatearen erantzule izango dira une oro; produktuek ez dute arriskurik izango kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ez da kalitate edo kantitate iruzurrik izango, ez eta faltsutzerik; identifikatuta egon beharko dute eta merkaturatzeko gutxieneko baldintzak bete.

9.- Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula edo neurtzeko beste tresna batzuk beharko dituzte, behar bezala homologatuta.

10. Eguneko jarduna bukatutakoan saltokia egon den lekua eta ingurua garbi utzi beharko dituzte saltzaile ibiltariak.

11. Zoladura, zuhaitzak edo jabetza publikoko ondasunak oro har hondatuz gero horiek konpontzeko erantzukizuna beren gain hartu beharko dute, beste batzuei eragindako kalteengatik izan dezaketen erantzukizunaz gain.

12. Baimenak irauten duen bitartean hura lortu zeneko betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen jarraitu beharko dute saltzaileek, bai eta ordenantza honetako xedapen guztiak zein garatzeko ematen diren gainerakoak eta udal agintari eskudunek ematen dituzten aginduak ere.

13. Saltokien arduradunek langile guztiak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean edo autonomoetan, edo baliokide den Europar Batasuneko erregimena????? alta emanda eduki beharko dituzte; baimena eskatzen duten unean horien zerrenda aurkeztu beharko dute.

14. Ibilgailuak azoka hasi baino ordu bete lehenago sartuko dira eremuan zamaketa-lanak egiteko. Salmenta-orduetan debehatu dago azoka barruan ibilgailuak ibiltzea.

15. Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debehatuta dago haiek eskualdatzea."

16. Baimendutako pertsonak salmenta ibiltariko azoketara joan beharra dute, eta joan ezean, behar bezala justifikatu beharko da.

Vitoria-Gasteizko Udalerriaren salmenta ibiltaria arautzen duen ordenantzaren 20.2) artikulua jasotako aldizkako azoka ibiltarietara asteen behin joaten diren baimendutako pertsonak urtean lau aldiz huts egiten badute eta horiek justifikatzen ez baditu, edo asteen bitan joaten direnek zortzi huts egiten badituzte, dagokion zigorra jarri ahalko zaie arauhauste arintzat joko baita hori.

Hamaika. 20. artikuluko 2. idatz-zatia honela idatzi da:

"2) Asteko azokak:

Saltoki kopurua, baita kokapena zein izango diren eguna ere, azoketako bakoitza arautzen duen dekretuan xedatuko dira, dena den, asteen bitan baino ezingo dira izan.



Gaur egun, hiru azoka daude: salmenta ibiltariaren bi, Simon Bolibar plazan bat eta La-kua-Arriagan bestea; eta hirugarren bat fruta eta barazki ekoizleen zein artisau produk-tuena ere, Santa Barbara plazan, Jesus Guridi kalean.

Azoka horietako salmenta antolatzearen arau hauek bete beharko dira:

Azoka 07:30etik 14:00etara egongo da zabalik.

Ebazpen baten bidez zehaztuko da nolako egitura izango duten saltokiek; saltzailea ardu-ratuko da muntatu eta kentzeaz.

Salgaiak garraiatu eta gordetzeko ibilgailuek horretarako adierazten diren bideetatik joan beharko dute, agindutako noranzkoan. Baimendutako lekuetan aparkatu behar dira. 07:30etik 09:30era arte sartu beharko dute azoka eremuan, eta 15:00etatik 15:30era bitartean irten.

Ezin izango da ibilgailuetan zuzenean saldu, horretarako instalatzen diren saltokietan bai-zik; ibilgailuak salgaiak berrizatzeko biltegi gisa baino ez dira erabiliko. Ibilgailu-saltokietatik saldu ahal izateko udal baimena beharko da.

Guztiz debekatuta dago azokan megafonia jartzea, disko, kasete edo beste ikus-entzunezko batzuen salmentarako izan ezik; horiek, dena den, ezingo dute gainditu dago-kion ordenantzan ezarritako soinu maila.

Udal Zerbitzuek hondakinak biltzeko ontziak jarriko dituzte eta saltzaileen ardura izango da horiek erabiltzea.

Udal zerbitzu teknikoek higiene eta osasun kontrolak zein merkataritza eta kontsumitzaileak babestekoak ezarriko dituzte, ordenantza honetan eta horrekin lotutako xedapenetan ezarritakoa behar bezala betearaziz.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak hartuko ditu azokako merkataritza jarduna dela eta izan daitezkeen erreklamazioak; egokitzat jotzen bada azokan bertan koka daiteke bulegoa.

Jarduera hau arautzeko ematen den dekretu edo ebazpenean zehaztuko dira aipatu gabe geratu diren alderdiak edo eguneratu nahi direnak.

Elikagaien kasuan, behar bezalako higiene eta osasun baldintzetan erakutsitako produk-tuak dastatzerik izango da zati txikitik, kontsumitzaileek jakien kalitate organoleptikoa probatzeko aukera izan dezaten.

Hamabi. 24. artikulua honela idatzi da:

"24. artikulua. Egun jakinetako azoketarako baldintza orokorrak.

Bide publikoak okupatzeagatik eskatzen diren tasak ordainduko dira eta garbitasunaren-gatik zein gerta daitezkeen kalteengatik erantzuteko zehazten diren bermeak jarriko dira. Saltokietarako nahitaezko modelook ezartzea izango da, guztiak berdinak izan daitezen eta kokatzen diren ingurunearekin estetikoki bat etor daitezen.

Saltokiek ez dute bebarru, atari edo bestelakoetan sartzerik eragotziko, ez eta pertsona zein ibilgailuen joan-etorriak ere; edonola ere, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute non kokatu behar duten.

Egun jakinetako beste azoka batzuk sortzeko eskatuz gero, udal zerbitzu teknikoek alder-di hauek aztertzen dituen txosten bat taxutuko dute: kokapena, bide publikoaren okupa-zioa, trafikoa, osasuna eta alderdi horretako merkataritzan eta zerikusia duten gainera-koetan izan dezakeen eragina; dekretu bidez ebatziko da azoka jartzea.

Jakiak saltzen diren azoketan osasun betebeharrak hauek hartu beharko dira aintzat:

1. Saltokiak osasun irizpideen arabera kokatuko dira, kutsadura gurutzatuak eragozteko; hori dela eta, animalia biziak edo beste elementu kutsagarriak enbasatuta ez dauden ja-kietatik ondo bereizita egon beharko dira.

2. Jaki guztiak etiketa batez identifikatuta egongo dira. Artisau produktoren batek etiketa-rik ez badu osasun erregistroaren zenbakia edo baliokidea, Europar Batasuneko beste herrialde batean landutakoak badira, eraman beharko du leku ikusgarri batean.

3. Produktu guztiak behar bezala babestuta eduki beharko dira, kanpotik kutsa ez daite-zen, eta inola ere ez lurretik 60 cm baino gutxiagora.

4. Behar bezala kontserbatzeko hotza behar duten jakiak (gazta freskoa, jogurta, txorizo freskoa, haragi freskoa, antxoak, krema eta esnegaina duten produktuak, etab.) hotzean gorde beharko dira.

5. Manipulatzekotan zatitzea besterik eskatzen ez duten jakiak erakutsi edo saldu ahalko dira bakarrik.

6. Saltokitik hurbil (gehenez ere 100 metrora) ura hartzeko gunea bat izango dute.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

7. Jaki guztiek produktu bakoitzarentzat elikagaiei buruzko legerian ezarritako ezaugarriak bete beharko dituzte beti ere."

Hamahiru. "Andre Maria Zuriaren jaietan txosnak jartzea", "Santu guztien eguna dela eta, hiriko hilerrietan jartzen diren lore azokak" eta "Erdi Aroko azoka" atalei dagokienez, 25. artikulua honela idatzi da:

"Andre Maria Zuriaren jaietan txosnak jartzea

a.- Txosnak jakiak eta edariak zerbitzatzeko instalazio desmontagarriak dira, horretarako barra bat baino ez dutenak; inoiz, erabil daitekeen lekua edo beste arrazoi batzuk direla medio, mahaitxoak jartzeko baimena ere eman liteke.

b.- Urte osoan zehar eta jarraian diharduten herritar taldeek jarri ahalko dituzte txosnak; jardun hori boluntarioen bidez burutu beharko dute. Talde horiek nortasun juridikoa izan beharko dute, edo legez ezagututa dauden eta Herritar Erakundearen Udala Erregistroan izen emanda dauden elkarten bermea izan beharko dute ondorio guztietarako. Haien jarduerak irabazte xederik gabeak izango dira, merkataritza etekinik lortu nahi ez dutenak. Balarazio Batzorde batek -Gasteizko Udaleko Kultura zein Osasun eta Kontsumo zinegotzi ordezkariak buru direla- eta erakunde kudeatzailea edo zeregin horiek betetzen dituen elkarteak -aurre-aurreko urtean instalatutako txosnen ordezkariak osatua- aztertuko dituzte aurkezten diren eskaerak, eta alkateari proposatuko diote instalatzea izango dutenen zerrenda, behar bezala arrazoituta.

c.- Higiene eta osasun betebeharrak bete beharko dituzte, ordenantza honetako 17 2) artikuluan ezarritakoak gutxienez, eta baimenean ezarritako gainerakoak.

d.- Baimena emateko ebazpenean zehaztuko dira egutegia, ordutegia eta gainerako baldintzak.

"Santu Guztien eguna dela eta, hiriko hilerrietan jartzen diren lore azokak

a.- Santu Guztien egunean (azaroaren 1ean) egiten den lore salmenta ebazpen bidez arautuko da.

b.- Santa Isabel eta Salbatzailearen hilerrien inguruan jarriko dira saltokiak, Bide Publikoaren Zerbitzuak zehazten duen lekuetan.

c.- Salmenta baimenak astebete iraungo du, Santu Guztien egunaren aurreko igandetik hasita hurrengo igandera arte; lekua guztiz garbi utzi beharko da azokaren ondoren.

d.- Saltoki bakoitzak gehienez 4 metroko fatxada izan ahalko du.

e.- Saltoki kopurua mugatu ahalko da, lurzoru publiko gutxi edo interes orokorreko arrazoiak badaude.

"ERDI AROKO AZOKA

a.- Frai Zacarias Martinez, Santa Maria eta Eskola kaleak hartuko ditu azokak, eta mutur batetik Buruileria plazaraino eta bestetik Aihotz plazaraino eta San Bizente aldaparaino iritsiko da. Eredu horren barruan geratzen diren kaleak eta plazak ere har ditzake. Eredu horiek saltoki kopuruaren eta lekuen erabilgarritasunaren arabera alda litezke.

b.- Eskulanak, elikagaiak, lanbideak... erakutsiko dira azokan, hura antolatzeko araudian zehazten diren proportzioan eta baldintzetan. Erakunde kudeatzaileak edo zeregin horietan aritzen diren elkarteak lehentasuna izango du Erdi Aroko hirigunean kokatutako denden saltokiak ezartzen den bezala kokatzeko.

c.- Etxebizitzan atariak eta fatxada hartzeko baimena ematen ez duten bebarruen zein zabalik dauden denden sarrerak libre utzi beharko dira.

d.- Larrialdietako ibilgailuak (suhiltzaileak, anbulantziak...) igaro ahal izatea bermatuko da, eta saltokiek pasabidea ez eragozteko.

e.- Jakiak saldu ohi dituzten dendek behar bezala enbasatuta daudenak saldu ahalko dituzte. Jakien ezaugarriak direla eta behar bezala kontserbatzeko hotza behar badute erakustoki hozkailuan eduki beharko dira etengabe.

f.- Produktuak dastatzerik izango da zati txikitik, kontsumitzaileek jakien kalitate organoleptikoa probatzeko aukera izan dezaten.

g.- Instalazioak altxatzen direnean hartu duten lekua guztiz garbi utziko da.

Hamalau. 28. artikulua honela idatzi da:

"28. artikulua. Bide publikoan jarritako saltokiak



1. Urte sasoi jakinetan izaten diren eta bertan kontsumitzekoak ez diren produktuen saltokiak (gaztainak, txurroak, izozkiak, loreak...), finkoak nahiz mugikorak, aldiz aurretik ezarritako lekuetan jarri ahalko dira, dagokion lehiatze prozeduraren bitartez.
2. Baimena jabari publikoaren erabilera berezira izango da; horrek esan nahi du okupazioa behin-behinekoa dela, lehiaketan edo enkantean ezartzen den eperako.
3. Lehiaketan edo enkantean zehazten diren fidantzak eta tasak ordaindu beharko dira; jarduera burutzeko behar diren gainerako zerbitzuak ere (argia, ura, etab.) adjudikazioa hartzen duenak ordaindu beharko ditu.
4. Adjudikatzeko administrazio egintza arautzen duen baldintza-orrian zehaztuko da zein leku hartu ahalko duten saltokiek; edonola ere, udal zerbitzu teknikoek zehaztuko dute kokapen zehatza.
5. Saltokien adjudikaziodunek garbi eta onik zaindu beharko dute erabiltzeko baimena ematen zaien jabari publikoa; halaber, bermea ezarri beharko dute kalterik sortuko balute ere.
6. Gasteizko Udalak salmenta horretan aritzeko saltoki eredu jakin batzuk nahitaez erabiltzeko agindu dezake, hiri altzarien irizpide estetikoekin bat etor daitezen.
7. Dena dela, saltoki horiek bide publikoan jartzeak eragiten dien merkataritza alorreko saltzaileei zenbat saltoki eta non kokatu galdetuko zaie, merkataritza edo profesionalen elkartearen bitartez."

Hamabost. 29. artikulua honela idatzi da:

"29. artikulua. Izoziak saltzeko berariazko baldintzak

Izozi salmentak higiene eta osasun baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Saltokiak kutsadura sor dezaketen guneeetatik urrun jarriko dira.
2. Saltokiak eraikitze materialak erabilera horretarako egokiak izango dira, iragazgaitzak, erraz garbitzeko modukoak eta toxikapen edo kutsadurarik sortzerik ez dutenak.
3. Aretoaren oinarria kaleko lurretik isolatuta egongo da, eta garbitzen eta desinfektatzen erraza izango beharko du.
4. Bitarteko eta instalazio egokiak izango dituzte salgai dituzte izozkiak kontserbatzeko.
5. Edateko ura izango dute.
6. Salgai jartzen diren produktuak industria baimenduetakoak izango dira.
7. Garbitzeko produktuak janari eta edarietatik bereiz gorde beharko dira, eta argi etiketatuta egon beharko dute.
8. Saltzaileek Elikadura Higienearen arloko Prestakuntza Ziurtagiria edo baliokidea, Europar Batasuneko herrialde bateko saltzaileen kasuan, eduki beharko dute.
9. Instalazioak guztiz garbi eduki beharko dira.
10. Edonola ere, elikagaiei buruzko legerian produktu horientzat ezarritako betekizunak bete beharko dira.

Hamasei. 31. artikulua kendu da testutik.

Hamazazpi. Hainbat artikuluri zenbaki berria ematea, hots, 32.etik 41.era doazenak 31.etik 40.era doazenak izatea.

Hamazortzi. 31. artikulua berria honela idatzi da:

"31. artikulua. Saltzeko beste modu batzuk.

Kaleko salmentarako eman den sailkapena gorabehera, badira atal horietan sartzerik ez dagoen zenbait jarduera, eta horiek ere arautu behar dira. Esate baterako ondorengoak:

1. Udal baimena beharko da makina automatikoen bidezko salmentarako, direla bide publikoan jarritakoak direla establezimenduetatik kanpo bide publikotik eskuratzeko moduan jarritakoak. Baimena lortzeko, Merkataritza Jarduera Antolatze Legeak eta ezartzekoa den gainerako legeak eskatutako betekizunaz gain, instalazio desmuntagarriak izan beharko dute, ez finkoak.

Baimena ematerakoan kokatu nahi den alderdiko baldintzak hartuko dira kontuan.

Besterik ezean, makina instalatuta dagoen edo argi-indarra hartzen duen lekuaren jabea joko da aparatuen arduraduntzat.

Saltoki horiek adingabeek oso eskura izaten dituztenez, berariaz debekatzen da horien bidez tabakoa, edari alkoholodunak eta mendekotasuna sor dezaketen bestelako produktuak saltzea, edo maneiatzean adingabeei kalte eragin diezaieketenik.



Makinak baimenik gabe edo baimenaz bestelako baldintzetan instalatuz gero, zigor prozedurari ekingo zaio, eta debekuak irauten duen bitartean makina prezintatzeko agindu ahalko du organo eskudunak.

Hemeretzi. 36. artikulua berria honela idatzi da:

“36. artikulua.- Arau-hausteak:

Aplikatzekoak diren alorreko xedapenek ezarritakoa gorabehera, ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

1) Hauek dira arau-hauste arinak:

a.- Ordenantza honetako xedapenak besterik gabe ez betetzea, zuzeneko diru-ondoriorik ez dutenean eta kontsumitzaileei kalterik sortzen ez dietenean, baldin eta larritzat edo oso larritzat hartzen ez badira.

2) Hauek dira arau-hauste larriak:

a.- Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egitea, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo delarik.

b.- Zuzeneko diru-ondorioak dituztenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.

c.- Osasunaren inguruko urratze larriekin batera gertatzen direnak.

d.- Nahitaezko udal-baimenik gabe salmenta ibiltarian aritzea.

e.- Agintariak eta agenteak ikuskapen eta kontrol zereginetan eskatzen dizkieten datuak edo argibideak eman nahi ez izatea, edo zehatzak, osoak nahiz benetakoak ez diren argibideak ematea. Uko egitearekin batera agintariak edo agenteak hertsatzea, mehatxatzea edo nolabait estutzea.

f.- Arauak hausten dituzten jarduerak eteteko eskakizuna ez betetzea.

3) Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

a.- Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea, hots, urtebetean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo delarik.

b.- Osasunaren inguruko arau-hauste oso larriekin batera gertatzen direnak edo jendearen osasuna eta segurtasuna arrisku larrian jartzen dutenak.

c.- Kontsumitzaileei kalte larriak sortzen dizkietenak.

d.- Gehiegizko irabazpidea ematen duten edo ekonomi antolaketa larriki aldatzen duten arau-hauste larriak.”

Hogei. 37. artikulua berria honela idatzi da:

“37. artikulua. Arau-hausteak:

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedia orokorrean aurreikusitakoa ezartzeaz gain, arau-hausteak Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira, eta udalaren eskumena izango da arau-hauste arinak eta larriak zigortzea, honako taula honen arabera:

1) Arau-hauste arinak direla eta zigor hauek ezarriko dira:

1. Ohartarazpena.

2. eta/edo 25.000,00 eurorainoko isuna

3. eta/edo salmenta-baimena gehienez ere hilabetez galtzea.

2) Arau-hauste larriak direla eta zigor hauek ezarriko dira:

1. 150.000,00 eurorainoko isuna

2 eta/edo salmenta-baimena galtzea.

3) Arau-hauste oso larriak direla eta zigor hauek ezarriko dira:

Eusko Jaurilaritzako organo eskudunek zigortuko dituzte, 900.000 eurorainoko isunaz.

Hogeita bat. 40. artikulua berria honela idatzi da:

“40. artikulua. Preskripzioa.

1. Ordenantza honetan ezarritako arau-hausteak, arinak badira, urtebeteko epean preskribituko dira, larriak badira, bi urteko epean, eta oso larriak badira, hiru urteko epean.

2. Arau-hausteak preskribitzeko epea egiten diren egunetik aurrera kontatutako da. Zigor-jardunbidea doakiona jakitun dela hasteak eten egingo du preskripzioa; ustez erantzukizuna duenari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zigor-dosierra hilabetetik gora geldituko bada, preskripzio-epea berriro hasiko da.

3. Zigorra preskribitzeko epea hura ezartzeko ebazpena irmo den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen. Preskripzioa eten egingo da zigortzeko prozedura abiarazten bada, interesduna horren jakitun dela, eta arau-hausleari ezin egotz dakioken arrazoiaren



bat dela eta, prozedura hori hilabetetik gora geldirik bada, jarraitu egingo da epea zenbatzen".

IV. KAPITULUA OSASUN ETA KONTSUMO SEKTOREARENTZAKO NEURRIAK

8. artikulua. Animaliak Edukitzeari eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzaren aldaketa

Bat: 2. artikulua kendu da eta edukirik gabe geratu.

Bi. 32. artikuluko lehen paragrafoa honela idatzi da:

"Indarrean dauden arauak xedatutako hirigintza baldintzak bete beharko dituzte jarduera horiek, edonola ere, hirigunetik nahiko urrun izango da jarduerak hurbil dauden etxebizitzetako bizilagunei eragozpenik ez sortzeko eta horiek beraiek gaixotasunekin kutsa daitezzen ekiditeko, baita beste animaliak kutsa daitezzen ekiditeko ere."

Hiru.- 41. artikuluko lehen paragrafoa honela idatzi da:

"Establezimendu guzti horiek bereiziko eraikinetan edo behe-solairuetako lonjetan baka-rrik jarri ahal izango dira -albaitaritza-ospitaleak izan ezik-, eta debekatuta egongo da jarduera hori hartarako diren eraikinetako etxebizitzetan burutzea. Era berean, ezingo dira kokatu animalientzako zainleku nahiz egoitzetan, salbu eta azken horien jabe kontsultategiaren titularra bera bada, beste aretoetatik behar bezala bereizita badaude, establezimendu batetik besterako zuzeneko pasabiderik gabe, eta biek ere eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

9. artikulua. Ileapaindegien, edertasun aretoen eta antzekoen higiene eta osasun baldintzak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

Bat. 3. artikulua honela idatzi da:

"Bat. Aretoen kokapena eta erabilera hiriko hirigintza arauak baimendutakoak izan beharko dira eta udal ordenantzetan xedatutakora egokitu beharko.

Bi. Ileapaindegien, edertasun aretoen eta antzekoen higiene eta osasun baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren 7. artikulua kentzea.

Hiru. Ileapaindegien, edertasun aretoen eta antzekoen higiene eta osasun baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren 24.5. artikulua aldatzea, hots, "baimena aldi baterako edo behin betiko kentzea" dioen kautelazko neurria kentzea.

10. artikulua. Alkoholismoa prebenitzeko udal ordenantzaren aldaketa

Bat. 7. artikulua kendu da eta edukirik gabe geratu.

Bi. Alkoholismo prebenitzeko ordenantzaren 17. artikulua aldatu da eta honela geratu:

Ordenantzak xedatutakoa hausteak isuna, jardueraren aldi baterako etetea eta/edo, kasua denean, establezimendua, zerbitzua, lokala edo enpresa aldi baterako edo behin betiko ixtea ekarriko du, gehienez, bost hilabetez.

.- Arau-hauste arinak isunarekin.

.- Arau-hauste larriak isunarekin zigortuko dira, eta/edo, establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa aldi baterako edo behin betiko ixtea ekarriko du, bi urtera arteko epeaz.

.- Arau-hauste oso larriak isunarekin zigortuko dira, eta/edo, establezimendu, zentro, lokal edo enpresaren jarduera aldi baterako edo behin betiko ixtea ekarriko du, bi urtetik bostera arteko epeaz.

Isunen zenbatekoa zein bestelako zigorren aplikazioa zehazteko, honako irizpideei jarraituko die organo eskudunak: arriskuaren larritasuna edo osasunerako eragindako kaltea, erruduntasun edo intenzionalitatea, gizartean eragindako aldaketa edo eragina, lortutako onuraren zenbatekoa, arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa, arau-hausleak merkatuan duen tokia, haustea errepikatua izatea".



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Lehen xedapen iragankorra.- Salmenta ibiltariko asteko azoketarako salmenta-baimenak

Honako ordenantza indarrean sartu eta hiru hilabete pasa ondoren, salmenta ibiltariko asteko azoketarako indarrean dauden baimenetako titularrek jarduerarekin jarraitu ahal izateko galdatzen zaizkien agiriak aurkeztu beharko dituzte Udalaren Merkataritza Atalean. Salmenta ibiltariko asteko azoketarako salmentaren ordenantzan galdatutako baldintzak betetzen dituzten pertsoneri hiru urtez luzatuko zaie baimena, bertan xedatutako betebeharrak betetzen dituela adierazten duen zinpeko aitortpena urtero aurkeztu beharko dutela.

Bigarren xedapen iragankorra - Bisatua eskatzea.

Proiektu teknikoa galdatu behar den zuzemen desberdinetan, bisatua eskatuko da arlo horri buruzko legeek xedatutakoari egokituko da, dagokion prozedura abiarazteko momentuan, hain zuzen.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau.